


DBHko geletan giroa nola hobetu

Tutoretza-saioak

**Amparo Montero
2010-2011**

Aurkibidea

I. IRAKASLEAREN ETA IKASLEAREN ARTEKO ELKARRERAGINA	4
I.1. Irakaslearen eta ikaslearen arteko eginkizun inklusiboak	
I.2. Irakaslearen eta ikaslearen arteko eginkizun ez-inklusiboak	
II. BERDINEN ARTEKO ELKARRERAGINA	14
II.1. Berdinen arteko eginkizun inklusiboa	
II.2. Berdinen arteko eginkizun ez-inklusiboa	
III. IKASLEEK GELAN LAN EGITEKO DUTEN JARRERA.....	16
III.1. Poztazun-une inklusiboak	
III.2. Etxerako lan zailak: aniztasunari erantzun egokia emateko oztopo dira (ez-inklusiboak)	



DBH-KO GELETAN GIROA HOBETZEN

ABIAPUNTUA

Gure gelako errealitatea askotarikoa da: ikasleek behar eta nahi desberdinak dituzte. Aniztasun horri erantzun egokia emateko, ikasle bakoitzarekin egiten duguna baino garrantzitsuagoa da gelako praktika guztiak berraztertzea eta berritzea.


Dokumentu honetan, irakasleon praktika egokiak jaso nahi ditugu (praktika horiek **inklusiboak** dira), uste baitugu gelako giroa asko hobetzen dela horiek praktikan jartzen ditugunean. Izan ere, geletan ikasleen aniztasunari erantzun egokia emateko, ez da nahikoa ikasle bakoitzari jarduera desberdinak prestatzea, zeren ikaste-prozesuan ikasle bakoitzak dituen zailtasunek eta arazoen ere badute lotura gelan gertatzen denarekin.

Gelako giroan hiru faktore hauek dute eragin zuzena: I. **irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarreraginak**; II. **berdinen arteko elkarreraginak**; eta III. **gelan bertan ikasleek lan egiteko daukaten jarrera**.

Hasteko, lehenengoari helduko diogu, eta **irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarreragina** aipatuko dugu.

Nolako harremanak ditugu ikasleekin gela barruan gaudenean? Aritu guztiek diote faktore horrek duela gelako giroan eragin zuzenena. Gainera, identifikatzeko errazena da. Zer egin dezakegu harreman horiek positiboak izan daitezen? Lau eginkizun azpimarratu ditzakegu bereziki: 1. harremanak pertsonalizatzea; 2. umorea partekatzea; 3. akordioetan malguak izatea; eta 4. ikasleak positiboki balioestea. Eginkizun horiek inklusiboak dira.

I. IRAKASLEAREN ETA IKASLEAREN ARTEKO ELKARRERAGINA



I.1. Irakaslearen eta ikaslearen arteko eginkizun inklusiboak

1. Harremanak pertsonalizatu

Gelako neska-mutilak ez dira *ikasleak* bakarrik. Denok –irakasleok barne– pertsonak gara gure sentimendu, emozio, arazo, nahi eta beldurrekin. Harremanak pertsonalizatzeko, errealitate hori kontuan hartu behar da; horregatik, soilik irakastea –eskola *ematea* baino ez dela ulertuz gero– ez da nahikoa.

Harremanak pertsonalizatzeko estrategia batzuk:

- Tarteka, animoak emateko mezuak igorri gelan adi ez dauden ikasleei, haienganako konfiantza adieraziz.
- Ez moztu bat-bateko elkarrizketak, orduan komunikatzen baitituzte ikasleek beren bizitzari buruzko kontakizunak eta pasadizoak.
- Susmatzen badugu ikasle batek ulertzeko arazoak dituela, galdetu aparte dena ongi ulertu duen ala ez.
- Gaia zaila edo garrantzitsua bada, horretaz ohartarazi azaltzen hasi baino lehen, eta egokitu edukia ikasle taldeari.
- Onartu oker egindakoa, garrantzia kenduko diogu-eta oker egiteari.
- Onartu gure hutsegiteak okertzen garenean; horrela, garrantzia kenduko diogu oker egiteari.
- Balioetsi positiboki ikasle taldea.
- Balioetsi positiboki ikasleen akatsak ere, okertzeak lanean ari garela adierazten duela azpimarratuz.

- Egon beti prest ikasleei laguntzeko.
- Ikasle bat kezkatuta ikusiz gero, galdetu zer gertatzen zaion, eta adierazi interesa.
- Hitz egin, noizbehinka, ikasleekin eskolaz kanpoko kontuez, eta ez pentsatu hori denbora galtzea denik.
- Lotu gelan emandako azalpenak ikasleen etorkizuneko lanbide eta interesekin, haien arreta ekartzeko.
- Ezinbestekoa da eskolak agurtzen hasi eta bukatzea.
- Saiatu ikasleak konbentzitzen edozein eduki ulertzeko kapaz direla.
- Esan noizbehinka ikasleei gainditzeko gai direla.

2. Umorea partekatu

Gelan, giroa lasaia eta konfiantzazkoa bada, umorea azalduko da. Balia zaitez, bada, umore une horietaz, **guztiok** elkarrekin barre egiteko. Hori bai, ez da batere egokia une horiek behartzea; ezta moztea ere.

Bestalde, aprobetxatu ikasleen artean sortzen diren bromak eta txantxak, betiere atseginak edo errespetuzkoak badira



Umore-une batzuk, adibide gisa:

- Lehenengo, geure buruaz! Irakasleak eta ikasleak elkarrekin barre egiten dute irakasleak berak esaten edota egiten duenaz.
- Film batean edota bestelako ikuskizun batean, zerbait xelebrea agertzen bada, elkarrekin barre egiten dute irakasleak eta ikasleak.
- Noizbehinka ikasleen xelebreekieriez barre egiten dugu.
- Ikasleen doinuak eta intonazioa txantxetan imitatzen ditugu.

2. Akordioetan malguak izan

Malgua izateak BESTEA kontuan hartzen dugula esan nahi du. Gelan ikasleak kontuan hartzen baditugu, haien behar eta ezaugarrietara egokituko gara, eta bertan gertatzen denaz ohartuko gara.

- Planifikazio-lana ez da bukatzen saioa hasten denean. Erabaki garrantzitsuenak eskola eman ahala hartzen ditugu (Ainscow, 1999).
- Eskola-saioa jazz-kontzertu bat da, etengabe BERDISEINATZEN da-eta.
- Malgutasunak bere mugak ditu, eta ezin gara gehiegikerietan erori.

Malgutasunaren inguruan, adibide batzuk:

- Azterketa baten data jarrita dago, baina ikasleek argudiatzen dute hobeto datorkiela beste momentu batean egitea. Irakasleak onartu egiten du.
- Etxerako lan asko dituzte ikasleek, eta irakasleari gutxiago agintzeko eskatzen diote. Irakasleak onartu egiten du.
- Ikasleak ariketak zuzentzen ari dira, eta irakasleari eskatzen diote polikiago hitz egiteko. Irakasleak onartu egiten du.
- Noizbehinka, irakasleak ikasleei proposatzen die bi eginkizunen artean hautatzeko. Ikasleak balioetsiak sentitzen dira.
- Adostu daiteke lan bat entregatzeko epea; izan ere, ikasleek akordioetan parte hartu badute, hobeto errespetatuko dute.
- Komenigarria da metodologiari buruz ere kontsultak egitea, ikasleen motibazioa areagotzeko.



- Ezinbestekoa da irakaslearen erabakiak argudiatzea.

3. Ikasleak positiboki balioetsi

Irakasleok, noiz balioesten ditugu ikasleak?

Sarritan, lanak ongi eta azkar egiten dituztenean.



Noiz ez dira balioetsi behar

Galderei zehatz erantzutean

Arbeleko lanak ongi egitean

Agindutako lanak azkar burutzean

Lana ongi bukatzean

Noiz balioetsi behar dira

Arbelean ariketa egin ahala

Kontzentratuta daudenean

Normalean parte hartzen ez duen ikasleak bere iritzia ematen duenean

Talde-giroa gogotsua eta sutsua denean

Hona hemen adibide batzuk:

- Irakasleak inoiz galderarik egiten ez duen ikasle baten izena esaten du, eta galdera bat egiten dio. Irakasleak ondo erantzuten du, eta irakasleak haren erantzuna azpimarratzen du, eta errepikatzen du.
- Irakasleak arbelean idazten du oso gutxitan parte hartzen duen ikasle baten iritzia.
- Irakasleak nabarmen ospatzen du galduta dabilen ikasle bati galdetu eta erantzun zuzena ematen duenean.

I. 2. Irakaslearen eta ikaslearen arteko eginkizun ez-inklusiboak

Bost eginkizun azpimarratu ditzakegu bereziki: 1. aurkakotasuna eta ezkutuko tentsioa sortzea; 2. tarteka, abiadura handiz aritzea; 3. ikasleei kasurik ez egitea; 4. ikasle gutxi batzuk oso begikoak izatea; eta 5. ikasleei mespretxua adieraztea.


1. Aurkakotasuna eta ezkutuko tentsioa sortzea

Egonezina sortzen duten adibide batzuk:

- Irakaslea konturatzen da ikasleek ez dutela ulertzen baina ez diotela galderarik egiten (Ikasle batek gelan galdetzea edo ez, irakaslearen jokaerak baldintzatzen du gehienetan, eta ez hainbeste irakasleak berak hartutako erabakiak).
- Irakasleak ikasle taldeari galdetzen dio: *Nork egin du laugarren ariketa? Zazpi ikaslek altxatzen dute eskua. Irakasleak zenbatzen ditu, eta berriro galdetzen du: Nor saiatu da eta ez du lortu? Ikasle bakar batek*

altxatzen du eskua. Irakasleak, oso haserre, dio:
Zenbat aldiz esan dizuet ez baduzue ulertzen galdetu behar didazuela!?

- Irakasleak hitz egiten duen bitartean, ikasle batzuk hizketan ari dira.
- Ikasleek jarrera desegokia dute: aulkian balantzaka egoten dira, adibidez.
- Ikasleak gelan sartzen dira baimena eskatu gabe.
- Ikasle batek garrasi egiten du.
- Ikasle batek ez dagokionean erantzuten du.
- Ariketak egiten dituzten bitartean, ikasleak barrezka eta jolasten dabilta.
- Baimenik gabe altxatzen dira.
- Gauzak elkarri botatzen dizkiote.
- Eskola-materialik ez dute ekartzen.
- Etxerako lanak bidaltzean, kexatu egiten dira.
- Azterketa baten abisua ematean, purrustaka hasten dira.
- Irakasleak ikasle bati zer edo zer leporatzen dio.



Hori guztia saihesteko kontuan hartu beharrekoa

- Eguneroko elkarbizitzak eta ikasleen aniztasunak ezinbestean sortzen ditu egoera horiek.
- Ez daukate zerikusirik, ez ikasle taldearekin, ezta irakasgaiarekin ere.
- Egoera horiek ez badira azkar bideratzen, gatazkak sor litezke.
- Gelan denok onartutako konpromiso batera ailegatzeak garrantzi handia dauka.
- Arauak argi utzi behar dira hasieratik, baina aldi berean malgua izan behar du egoera edo lanaren arabera: arauak aldatu egin daitezke!

2. Tarteka, abiadura handiz aritzea

Gehienetan, irakasleok ez gara konturatzen tarteka abiadura handiz aritzen garela, eta ikasleek azkarregi goazela esaten digutenean ez diegu sinesten, beti kexaka eta protestaka ibiltzen direlako. Halere, ikasleek, hori esan orduko, gehienetan denbora luzean jasan dute egoera hori ezer adierazi gabe.

- Abiadurak askotan anabasa bultzatzen du, erritmoari jarraitzen ez dioten ikasleek deskonektatu egiten baitute, eta, ez aspertzeko, beste ikaskideekin hasten dira hitz egiten.
- Irakasle batzuek abiadura erabiltzen dute ikasgela kontrolatzeko, eta pentsatzen dute ikasleek zerbait ulertu ez badute erne egon ez direlako izan dela.

Hona hemen adibide batzuk horri buruz hausnartzeko, jakinda abiadura dela ikasleak baztertzeke faktore bat:



- Gure azalpenak presaka emanez eta ariketak eta jarduerak korrika aginduz lan egitea beti: *Azkar noa, eh! Ulertzen ez duena... sentitzen dut!*
- Orain irakasleak honako hau dio:
 - Hiru minutu dituzue ariketak egiteko.*
 - Txo! Hiru minutu?* –esaten du Ikerrek.
- Irakasleak ikasleei proposatzen die idatziz hausnarketa bat egiteko, eta horretarako bost minutu besterik ez die ematen.
- Eskola bukatzeko bost minutu falta direnean, azterketatxo bat egiteko agintzen du irakasleak.
- Eskola bukatzeko bost minutu falta direnean, beste gai edota jarduera bat hasten du irakasleak.
- Entzumena lantzean irakasleak berehala gelditzen du kasetea.

3. Ikasleei kasurik ez egitea

Batzuetan, eta arrazoi askorengatik, irakasleok ez diegu ikasleei kasurik egiten; bada, jarrera hori baztertzailea izateaz gain, arriskutsua bihur liteke. Ikasle batzuk eztabaidan hasten badira eta irakasleak ez ikusiarena egiten badu, eztabaidak liskarra ekar lezake eta, azkenean, ikasle guztiak inplikatu.

Horrelako tartek nahita edo nahigabe gerta litezke. Askotan gertatzen badira, nahasmendua bultzatzen dute. Irakasleak gelan gertatzen den guztiaz konturatu behar du, eta baita esku hartu ere.



Adibide batzuk

- Ikerrek beste ikaskide bati oihukatzen dio: *Ostikada bat emango dizut!*
Irakasleak ez du ezer esaten eta beste ikasle batengana abiatzen da azalpen bat ematera.
- Halako batean, ikasle bat leihotik paperak botatzen hasi da. Irakaslea beste ikasleekin dago hizketan eta ez dio kasurik egin. Beste ikasle batzuk leihoan dagoenarekin hasi dira eztabaidatzen eta batek oihukatzen du: “*Gilipollas!!*” Ikasle guztiak, aztoratuta, oihuka hasi dira.
- Azken mahaian ikasle bat, burua makurtuta, lokartu egin da; irakasleak ez dio ezer esaten.
- Ikasle batek musika entzuten du eta irakasleak ez ikusiarena egiten du.
- Ikasle bat bakarrik esertzen da, eta ez du inorekin hitz egiten; irakaslea ez da konturatu ere egiten.
- Irakaslea arbelean zerbait idazten ari da eta ikasle batek, eskua altxatuta duela, behin eta berriro eskatzen du irakaslearen arreta; irakasleak kasurik egin gabe jarraitzen du arbelean idazten; ikasleak eskua jaitsi, eta albokoarekin hizketan hasten da.

4. Ikasle batzuk begikoak izatea

Batzuetan, arrazoirik gabe, irakasleok egoera zehatz baten aurrean modu atseginez edo zakar samar erantzuten dugu, galdera nolakoa den. Hori kasurik ez egitearekin ere lot daiteke. Ikasle batzuek gure arreta bereziki ekartzen dute, eta beste batzuek ez hainbeste; askotan, ez dago kausa argirik. Hori gertatzeak ondorio latzak ekar ditzake gelako giroan. Ikasle batek harira ez datorren konturen bat edota zerbait iraingarria esaten badu eta irakasleak horri erantzuten ez badio, edo galdetu duena deskalifikatzen badu, beste

ikaskideek barre egingo dute, eta ikaslea bera haserretuko da edota bere burua baztertuko du.

Adibide batzuk

- Irakasleak, azalpenak ematen dituenean, ikasle batzuei baino ez die begiratzen.
- Irakasleak ikasle batzuen galderak baino ez ditu erantzuten.
- Irakasleak, ikasleek idazten duten bitartean, ikasle batzuen lanak baino ez ditu zuzentzen.
- Irakasleak ikasle batzuei azalpen luzeak eta atseginak ematen dizkie; beste batzuei azalpen motzak eta hotzak.
- Irakasleak, notak irakurtzean, nota onak lortu dituztenak baino ez ditu zoriontzen; besteei ez die ezer berezirik esaten.
- Irakasleak, ikasleen artean, hierarkiak sortzen ditu. Ondorioa desberdintasunak eta sailkapenak dira.

5. Ikasleei mespretxua adieraztea

Praktika hau oso lotuta dago aurrekoarekin. Askotan, mesprezua eta faboritismoa elkarrekin doaz. Irakasleok ikasleak sailkatzen ditugu, estereotipatzeko joera daukagunez gero. Horri gehitzen badiogu mespretxua publikoki adierazten dugula gelan, argi dago gatazkak sorraraziko ditugula. Irakasleon ardura da une horiek ekiditea eta zuzentzea iruzkin iraingarriak edota burlazkoak egiten dituztenak ikasleak direnean.

Adibideak

- Azterketa baten emaitzak ematean, gainditu ez dutenak aipatzea soilik.

- Tutoreak, notak esatean, ikasle batzuen gutxien kopurua azpimarratzen du: *Ikerrek, 10 gutxi; Anak, 8 gutxi....*
- Irakasleak ozenki irakurtzen du gaizki idatzita dagoen ikasle baten lana, beste ikasle guztiak kontura daitezen horrela ezin dela egin. Irakasleek barre egiten dute.
- Irakasleak ikasle bati, gainerako ikaskideen aurrean, oso atzeratuta dabilela leporatzen dio.
- Irakasleak aurrez ezer galdetu gabe, ikasle bat lan bat egiteko kapaz den ala ez zalantzan jartzen du denen aurrean.

II. BERDINEN ARTEKO ELKARRERAGINA

II.1. Berdinen arteko eginkizun inklusiboa

Ikasleen joera naturala elkartzea da. Askotan ohartzen gara elkarri trukatzeko dizkiotela argibideak, azalpenak eta informazioa gure azaldutakoen inguruan. Horrelakoetan, irakasleok sarri isilarazten ditugu, gelako lana eragozten dutela esanda. Beraz, joera hori aprobetxatu ordez, gaitzetsi egiten dugu. Azalpenezko metodologiak ez du bultzatzen ikasleen arteko elkarreragina. Hori lortzeko, egokiago da lankidetzaren bultzatzen duten metodologiak erabiltzea (lan kooperatiboa, IKTen erabilera, ahozkoitasuna...).

Elkarrekin daudenean ikasleek honako hiru onura hauek bilatzen dituzte: **beste ikaskideekiko onarpena, elkarrekiko lana eta elkartzeko nahia.**

Lehenengoari eta bigarrenari dagokienez, taldetan lan egitea eta metodologia kooperatiboa erabiltzea asko gustatzen zaie ikasleei. Gainera, hori ez da metodologia bat soilik, irakatsi behar den edukia ere bada. Ikasleei taldetan

lan egiten irakatsi behar diegu, beste edozein eduki irakasten diegun bezala: Euskarari edo Biologiari dagozkionak, adibidez.

Zer gertatzen da gelan ikasleek taldetan lan egiten duten bitartean?



- Giroa erlaxatua eta parte hartzekoa da. Taldekideek elkarri trukutzen diote egin beharreko lanari buruzko informazioa. Lana elkarrekin egiten duten bitartean ahopeka hitz egiten dute.

Irakasleak, bitartean, paseatu eta ikasle bati edo taldeari zalantzak argitzen dizkio.

- Ikasleak berehala ekiten dio ariketak egiteari. Taldekideen arteko elkarreraginak lana erraztera bideratuta daude. Ez dago tentsiorik, ezta bortizkeriarik ere.
- Irakasleari galdetzen diote banan-banan, eta taldeka. Galderak zehatzak eta interesatuak dira.

II.2. Berdinen arteko eginkizun ez-inklusiboa

- Ikasleen arteko tirabirak
 - Irakasleak adi egon behar du, eta, behin ohartuta, esku hartu beti.
 - Ezinbestekoa da Arautegia hezitzailea eta argia izatea (AJA).
- Ikaskideen arteko lehia
 - Berez ez da txarra.
 - Txarra da, geure buruaren ezagutzatik eta taldearen atxikimendutik urruntzen bagaitu.
 - Frustrazioa eta ondoeza sor ditzake.
 - Irakasleok ikasleen arteko konparazioak egiten ditugu (notak ozenki esan...).

III. IKASLEEK GELAN LAN EGITEKO DUTEN JARRERA

III.1. Poztazun-une inklusiboak

Parte hartzeak adierazten du ikasleak pozik eta gustura daudela. Ikaslea pozik egoten da lanak egiten badakienean; orduan galdetu eta parte hartzen du.

Zer gertatzen da ikasgelan poza eta adorea nagusitzen direnean?

- Denbora bizkor pasatzen da.
- Edukiak bizkorrago berenganatzen dira.
- Giro alai eta dibertigarria dago. Balore positiboak agertzen dira: elkartasuna, adiskidetasuna...

III.2. Etxerako lan zailak: aniztasunari erantzun egokia emateko oztopo dira (ez-inklusiboak)



Irakasleok ikasleei agintzen dizkiegun etxerako lanak ez dira izaten oso ondo ulertu ez duten edukia euren kabuz sakontzeko. Etxean egiteko gauza berriak eskatzen dizkiegunean, agindutako lana egingo dute (edo ez), ikasle bakoitzak ikastetxetik kanpo dituen baliabideen arabera. Batzuek etxean laguntza daukate (gurasoak, ordenagailua, irakasle partikularra...); beste batzuek, berriz, ez dute halakorik, eta ezberdintasun hori kontuan hartzea komeni zaigu.

Beste alde batetik, irakasleok gelan etxerako lanak emaitzei erreparatuz soilik zuzentzen ditugu, eta ez diegu galdetzen nolako zailtasunak topatu dituzten ariketak egiterakoan; galdera xume bat nahikoa litzateke jakiteko zer baliabide erabili duten eta azaldutakoa ulertu duten ala ez.

1. Ikasleen zailtasunak azaltzeko arrazoiak

- Material didaktikoa askotarikoa ez izatea.
- Beti antzeko ariketak eta jarduera berberak egitea
- Azalpenean oinarritutako metodologia gehiegizkoa izatea.

2. Arreta galtzeak dakartzan ondorioak

- **Anabasa:** Ikasleek nahi dutena egiten dute. Zarata eta iskanbila sortzen da, eta irakaslearen azalpenak ez dira entzuten. Oihuka bukatzen da saioa.
- **Gogo falta:** Ikasleek ez dute ezer egiten, pasibo eta nekatuta agertzen dira, eta ez diote jaramonik egiten proposatzen zaien ezeri.

- **Rol independentea:** Ikasle bakoitzak nahi duena egiten du, baita beste irakasgaien lanak ere.


3. Formaltasuna bultzatzea, arreta galtzearen kontrako aukera egokia al da? Anabasaren kontra borrokatzeko, askotan erabiltzen dugu formaltasuna.

Formaltasun hertsiaeren adibideak

- Ikasleek arbelean idatzi ditugun hitz guztiak kopia behar dituzte.
- Liburuan agertzen diren ariketa guztiak kopia behar dituzte egin baino lehen.
- Ariketa oso mekanikoak egiteko agintzen diegu.
- Azalpenak abiadura handian ematen ditugu



Gelako elkarbizitzak
ekartzen du (besteak beste)



hausnartzea nolakoak diren
irakasleen eta ikasleen arteko
elkarreraginak